




Eulalia ABAITUA



## EULALIA ABAITUA Argazkilari handia

**E**ulalia Abaitua euskal argazkilaritzaren bene-benetako aitzindaria izan zen. 1853ko urtarrilaren 25ean Bilbon jaio eta Bizkaiko hiriburuan hil zen 1943ko irailaren 16an.

Maria Elvira Juliana izenarekin bataiatu zuten, baina, jaio eta egun gutxira bere ama hil egin zen, eta, hala, amaren izena hartu zuen omenaldi gisa, Eulalia. Eulaliaren aita, Luis de Abaitua, merkataria zen, eta, emaztea hiltzean, inudibat kontratatu zuen bai Eulalia bera bai Felipe seme zaharrena hezteko.

Familia aberatseko kide, Katalunian egin zituen Eulaliak ikasketak, Sarriako Bihotz Sakratuan, zehazki. Eulaliak egindako ikasketen berri, baina, apenas dugu, eskola hartako artxibo guztiak 1936ko gudan suntsitu zituzten-eta.

1872an, Juan Narciso de Olano y Picavea de Lesaca ontzi jabearekin ezkondu zen Abaitua, eta lau seme-alaba izan zituzten. Hirugarren Karlistaldia tarteko, Erresuma Batuko Liverpool hirira joan zen bizitzera familia bizkaitarra eta bertan ezagutu zuen Eulaliak argazkilaritza. Arte honekin erabat maiteminduta, argazkiak egiteko beharrezko gailuak erosi zituen Erresuma Batuan eta argazkilaritzako teknika ezberdinak ere ikasi zituen.

Behin guda amaituta, 1878 inguruan, Euskal Herrira itzuli ziren Abaitua, Olano y Picavea eta euren seme-alabak, eta txalet ingeles tankera duen etxebizitza eraiki zuten Bilboko Begoña auzoko basilikaren ondoan: Pino jauregia. Etxeko sotoan argazkilaritza laborategia jarri zuen Eulaliak eta bertan abiatu zuen argazkilari gisa egindako bide oparoa.

1941ean, aspaldi alargundutako Eulaliak Pino jauregia utzi zuen azken urteak Bilboko Kale Nagusian igarotzeko. Bi urte geroago hil zen, 1943ko irailean.

### EMAKUMEEN EGUNEROKOAREN BERRI

Eulalia Abaitua da Euskal Herriko lehen emakume argazkilaria, aurretik, bederen, ez baita beste emakumerik ezagutzen. Bere lan kutunenak zuri-beltzean eta 44x107 mm-ko kristalezko plaka estereoskopikoekin eginda daude, beste hamai-katena ere menderatzen zituen arren.

Pertsona xume eta umilak, gehienetan erabat anonimoak, ziren bere kamerarekin irudikatzen zituen protagonistak. Hori dela eta, bere lanek balio handiko dokumentu historikoa osatzen dute, garai hartako ohitura, jai eta tradizioak ezin hobeki jasotzen dituztelako. Azken batean, gure herriaren bizitzaren isla grafiko ezin hobea dira. Eulaliak, gainera, be-

reziki gogoko zuen emakumeak irudikatzeari, baserri zein hiri eremuetako andreak, eta, beraz, euren eguneroko bizitza ezagutzeko garrantzi handia du bizkaitarren lanak.

Abaituaren lanak Bilboko Euskal Museoa bilduman daude. Zehazki, 2.500 argazki inguru daude bertan eta horietako 1.369 eskuragarri daude une oro. 1990ean aurkeztu zen lehenengoz emakume bilbotar honen lana eta dagoeneko bost erakusketa antolatu ditu Bilboko museoak. Hiru gai jorratzen dira bereziki Abaituaren lanetan: bizitza pribatua, mundu tradizionala eta hiritarra, eta bidaiak.

XX. mende hasierako emakumezko argazkilaria amateur baten lana orduko argazkilaria garaikideek aipatzea batere ohikoa ez den arren, Aristides de Artiñano eta Zuricalday argazkilaria bere lanetan Eulalia Abaituaren hainbat argazki jasotzen ditu, hori bai, *Sra. De Olano* ezizenarekin sinatuta. Alberto Schommer argazkilaria handiaren begietara, «Eulalia Abaituak ez du artea arteagatik bilatzen, ez du argi jolasik edota konposizio korapilatsurik bilatzen. Bere herria maite eta hura interpretatzea atsegin du, bere begirada sentiberarekin. Benetako *reporter* bat da Eulalia; egun Magnus agentziako argazkilaria izango litzateke».